

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Zarraluqui eta Alli kontseilariak tutoretzapeko sei pisu inauguratu dituzte Lekunberrin

Mendekoak ez diren 60 urtetik gorakoentzat eta urritasunen bat duten adin horretatik beharagoentzat izango dira.

Martes, 18 de febrero de 2014

Luis Zarraluqui Ortigosa Sustapeneko kontseilariak eta Íñigo Alli Martínez Gizarte Politiketako kontseilariak tutoretzapeko sei pisu inauguratu dituzte gaur eguerdian Lekunberrin. Pisuak mendekoak ez diren 60 urtetik gorakoentzat eta urritasunen bat duten adin horretatik beharagoentzat izango dira, eta datorren martxotik hasita beteko dituzte.



Alli eta Zarraluqui kontseilariak tokiko agintariekin.

Etxebizitzak Lekunberriko eta Larraungo udalen proiektu baten emaitza dira eta Lekunberriko eguneko zentro bateko lehen solairuan daude. Eraikinak bi solairu ditu. Beheko solairuan eguneko zentroa dago, baita maizterrek erabil ditzaketen beste gela batzuk ere. Goiko soliruan sei etxebizitzak daude, horietatik lau berrogei metro karratukoak dira, beste bat 55 metro karratukoa eta beste bat 70 metro karratukoa, bi pertsonarentzako modukoa.

Etxebizitzek babes ofizialeko etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa izango dute eta baldintzak betetzen dituzten pertsona edo familia-unitateei esleituko zaizkie errentan, deialdi publikoa eginda eta baremoa aplikatuta. Diru-sarrera urrien baldintzak betetzen dituzten esleipendunen errentaren % 75, % 50, % 25 edo ezer ere ez ordaintzen lagunduko du Sustapeneko Departamentuak, PFEZaren aitorenaren bidez justifikatuko den egoera ekonomikoaren arabera.

Obrak Construcciones Lansalot enpresari esleitu zitzaizkion 175.139,32 euro gehi BEZaren truke. Sustapen Departamentuaren itzuli beharrik gabeko diru-laguntza 168.276 eurokoa da.

Bestalde, 2007ko maiatzean, Gizarte Ongizateak hainbat urtetarako 605.840,80 euroko diru-laguntza eman zion Lekunberriko Udalari hogeitazko plaza eguneko zentro baten proiektua egin, eraiki, urbanizatu eta ekipoz hornitzeko.

Jasotako diru-laguntza 757.301 euroko aurrekontu onartuaren % 80 da. 2008an, Lekunberriko Udalak proiektua handitzeko eskatu zuen, eta milioi bat euro ere onartu ziren. Hainbat urtetarako 169.889,30 euroko diru-laguntza jaso du, hau da, aurrekontu onartu osoaren % 70. Lekunberriko Udalak aurkeztutako amaierako aqirietan, inbertsioa osoa 1.163.486,76 eurokoa izan da.



Pisuak Lekunberriko eguneko zentroan daude.